

---

## **UDALAK ALGODONERAKO EMAKUMEEN PLAZAKO GARAJE PLAZAK ALOKAIKURAN JARRI DITU**

Jose Luis Verdasco Hirigintza eta Ingurumen zinegotziak jakinarazi duenez, "Udalak jabetzan dituen 22 garaje-plaza (marradunak) 3 urterako (gehienez ere 6 urtera arte) alokairuan esleitzeko prozesua abian jarri da. Garaje horiek Algodonerako Emakumeen plazako 3W-ko lurpeko garajeetan daude.

Verdascok adierazi duenez, "esleipena zozketa bidez egingo da, eta eskaera plazen eskaintza baino handiagoa bada, itxaron zerrenda bat sortuko da.

Izena emateko epea 4tik 29ra bitartekoa da. Parte hartu ahal izateko, Udalaren web orrian dagoen eskabide orria bete beharko da (<https://labur.eus/aLGky>) eta, besteak beste, dokumentazio hau erantsi:

- NAN, pertsona fisikoentzat, eta IFK, pertsona juridikoentzat.
- Ibilgailuaren zirkulazio baimena.
- Indarrean dagoen gidabaimena.

Parte hartzeko eskaera, eskatutako dokumentazioarekin batera, Herritarrentzako Arreta Bulegoan aurkeztu behar da – Atarian edo Udalaren web orriko erregistro telematikoen bidez. Prozesuaren oinarriak udalaren web orrian kontsulta daitezke, <https://labur.eus/RQQYu> estekan.

Verdascok adierazi du, "Udalak beste 14 plaza ditu jabetzan, alokairuan atera ezin direnak, Aita Larramendi kaleko 30-32 zenbakien parean atzealdeko bidean aurreikusitako obrak egin ahal izateko gordeta baitaude".

Azkenik, Maider Lainez alkateak hau nabarmendu du "funtsezkoa iruditu zaigu 22 garaje-plaza horiek alokatzeko aukera herritarren esku jartzea, dagoen defizita nolabait arintzeko eta Andoainen dugun aparkaleku-eskaerari erantzuteko".

Andoain, 2023ko martxoak 6

---

## **EL AYUNTAMIENTO PONE EN ALQUILER PLAZAS DE GARAJE EN ALGODONERAKO EMAKUMEEN PLAZA**

El concejal de Urbanismo y Medio Ambiente Jose Luis Verdasco ha informado "de la puesta en marcha del proceso para la adjudicación, en régimen de alquiler por 3 años, prorrogables hasta un máximo de 6 años, de 22 plazas de garaje (rayas) que el Ayuntamiento tiene en propiedad en los garajes subterráneos situados en Algodonerako Emakumeen plaza, 3W".

Verdasco ha informado que "el proceso de adjudicación será mediante sorteo y en el caso de que la demanda supere a la oferta de plazas, se creará una lista de espera.

El plazo para inscribirse es desde el día 4 hasta el día 29 y para poder participar deberá rellenar el impreso de solicitud que encontrará en la web municipal (<https://labur.eus/aLGky>) y adjuntar, entre otras, la siguiente documentación:

- DNI, para personas físicas y CIF, cuando se trate de personas jurídicas.
- Permiso de circulación del vehículo.
- Carné de conducir en vigor.

La solicitud para poder participar, junto con la documentación requerida, se debe presentar en la oficina de atención a la ciudadanía – Ataria o a través del registro telemático de la página web del Ayuntamiento. Las bases del proceso pueden ser consultadas en la web municipal en el enlace <https://labur.eus/RQQYu>".

Verdasco ha señalado que "el Ayuntamiento tiene en propiedad otras 14 plazas, que no se pueden sacar en alquiler, porque están reservadas para posibilitar la futura ejecución de las obras previstas en el vial trasero a la altura de los números 30 -32 de la calle Aita Larramendi".

Por último, la alcaldesa Maider Lainez ha destacado que "hemos considerado fundamental poner a disposición de la ciudadanía la oportunidad de alquilar estas 22 plazas de garaje, para paliar en cierta medida el déficit existente y dar respuesta a la demanda de aparcamiento que tenemos en Andoain".

Andoain, 6 de marzo de 2023